

AGURRA

Irakurlearen eskura jartzen ditu Euskaltzaindiak bere XVI. Biltzarraren aktak, euskalgintzaren eta euskalaritzaren barnean testu esanguratsuak plazaratuz, hona biltzen baitira hainbat adituren ekarpenak.

Hainbatez, Henrike Knörr zenaren ekimenez heldu zion euskararen akademiak biltzar honen gaiari. Auzo-hizkuntzak ditugu euskaldunok okzitania-
ra eta aragoiera, eta neurri batean, katalana ere, Pirinioetako mendikate le-
rroan bizikide garelako.

Baziren horretan ere, gai desberdinak eta, aldi berean, erkide direnak gure hizkuntzen artean. Hartara, hizkuntzen historia, literatura, soziolinguistika eta onomastika dira hortxe irakurgarri eta ohargarri, lau hizkuntzen artean.

Biziki eskertu behar dira, bestalde, liburu horretan argitarazle lana egin dutenak, besteak beste, Patxi Salaberri, Andoni Sagarna eta Joseba Lakarra euskaltzain osoak, eurak izan baitira biltzarraren aktak argitaratzeko ardura izan dutenak. Ezin bazterrean utzi, bestalde, Euskaltzaindiaren argitalpen zerbitzuak, berebiziko lana egin dutelako akta hauek argitaratzeko. Horrek erraztu du, begi bistan denez, aktak kaleratzeko bide berria, garaian garaiko premiei erantzun egokia emanez.

Eskerrak, orobat, Biltzarra ahalbidetzeko Akademiari bere laguntza eta babesa eman zioten erakunde publiko, instituzio eta Nafarroako Gobernuari. Eskerrak, halaber, Biltzarrean parte hartu izan duten guztiei eta batez ere, gomuta dezadan Juanjo Zearreta (g.b.) Euskaltzaindiaren kudeatzailea, berau izan baitzen, lan nekaezinaren bidez, Iruñeko egun haien hauspoa eta arima.

Andres Urrutia Badiola,
Euskaltzainburua/Presidente